



**Aitor Sarriegi:**  
«Ez nuen argi ikusten buruz burukoa, denak pareko ikusten nituen»

**Beñat Gaztelumendi:**  
«Hasieran kosta egin zait sartzea, baina bakarka eta buruz burukoan goraka egin dudala uste dut»

**Alaia Martin:**  
«Pozik nago. Disfrutatu egin nahi nuen eta lortu dut»

**Iñaki Apalategi:**  
«Oso hunkituta sartu naiz eta horrek ez dit aterratzen utzi lehenengo lanean»

**Agin Rezola:**  
«Plaza haunditxo geratzeko beldurra nuen eta hasieran hala iruditu zait. Gero zentratu naiz, baina bukaeran lanbrotu egin zait dena: gaiak, ideiak...»

**Jexux Mari Irazu:**  
«Gustora geratu naiz nere lanarekin. Bukaera polita eman diodala uste dut»

**Jon Martin:**  
«Sentsazio berezia izan da 10.000 pertsona begira izanik, etxeko salan bezala sentitzea»

**Unai Agirre:**  
«Zortzigarren izanda triste egon beharko nukeela dirudi, baina ez da hala. Kosta egin zait beroan sartzen eta denetariko sentsazioak izan ditut»

## GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA - GPUNTUA

# Aitor Sarriegi txapeldun, ondo merezita

Beñat Gaztelumendik jokatu zuen buruz burukoa, eta 5,5 puntura geratu zen. Sarriegik Mikel Mendizabali eskaini zion txapela.

AITOR Sarriegik jantzi zuen Gipuzkoako txapela, atzo Illunben, ia 10.000 lagunuen aurrean. Lehenengo lanetan berak dominatu zuen, eta buruz burukora 16 puntuko aldearekin pasatu zen, Beñat Gaztelumendirekin batera. Gaztelumendik bukaera ikaragarria eman zion saioari, eta bigarren postua lortu zuen, bigarren aldiz segidan. Final ederra izan zen, bertso mailaz eta jendez. Sarriegiri Laxaro Azkunek jantzi zion txapela, eta Mikel Mendizabali eskaini, bertso maisu izandakoari eta bertso munduan hainbeste lan egindakoari.

Orokorrean saio parekatua izan zen atzokoa. Alaia Martin eta Iñaki Apalategi hazi egin zituen plazak, eta hirugarren eta laugarren postuan geratu ziren, saio ederra eginda. Agin Rezolak bosgarren postua lortu zuen eta ale ikaragarriak utzi zituen. Irazuk puntu bat gehiago behar izan zuen, aurrean sartzeko, saio erregularra eta ona egin baitzuen. Jon Martin eta Unai Agirre izan ziren zazpigarren eta zortzigarren, eta haiek ere ale ederrak utzi zituzten.

Hernaniko bertso eskolako kideek lan ezin hobea egin dute, txapelketa osoan, eta lau kide sartu dituzte finalera. Emaizta ederra, beste behin ere.

**Sarriegi nagusi, lanez lan**  
Ia hutsik egin gabe eta maila ikaragarriar aritu zen Sarriegi. Sei puntuko motzean, Alaia Martin eta biak seropositiboak ziren; Sarriegik haurra izan nahi, eta Martinek ez. Martinek bota zion: *Bizitza bera da juez / ta kondena jarri du beltz / Nire sabelak ume batekin maiz egin du amets / Ta kasualidade batez / kutsatzean gure kaltez / Guk berdin-berdin maiteko dugu baina jendeak ez. Sarriegiren*



Laxaro Azkunek jantzi zion txapela Sarriegiri.

### TXAPELDUNAREN AGURRA:

*Beasaindik Ordizira  
Ordizitik Beasaina  
Ataundik ere heltzen zen  
autobuskada bikaina  
Barrena zaharrak zeukan  
historiaren usaina  
Ta zu Mikel Mendizabal  
artaldearen artzaina  
Urte asko pasa dira  
sasoi hartatik oraina  
Goierrik eta bertsoak  
asko zor dizute baina  
Inork zor al dizu zure  
ikasle ginenok aina  
Besterik ez daukat eta  
hartzazu nere ordaina*

*erantzuna: Begiratzea ezberdin / seinalatuz behatzekin / Badakit zer den eta sortzen du noski hainbeste min / Baina ez hitz egin arin / Hau zuzena izan dadin / Jendeak ez du erabakiko guk biok zer egin.*

**Puntu erantzunean, puntu gutxi**  
Baju xamarra izan zen puntu erantzunen lana. Apalategik egin zuen lanik onentsuena;

hemen bat: **Paparazzi ugari, dabil zure bila...** *ba ondo apuntatu hemen da mutila / irriparrez ari da, hara ze hortz pila / baina gertuxeago, etorri dadila.* Irazuk ere horrela kantatu zuen: **Bateko twitterra ta besteko facebooka...** *Ni bi hoietan nabil, dexente galduta / Nik bertsoa.com, nahi nuen apunta / gainontzeko guztiak, zentzurik ez du-ta.*

**Zortziko haundia eta txikia, arratsaldeko onentsuena**  
Lan asko eta onak entzun ziren atzo zortziko haundian. Gaiak ere hartarakoxe bidea ematen, eta bertsolariak umorez asmatu zuten. Rezola izan zen onena. Gaztelumendi lagun zuela, parrez jarri zuten biek Illunbe, dieta egiten bi hilabetez ari diren bikote baten ahotan. Orain-txe tokatu zaie Gabonetako saski eder bat. Rezolak horrela kantatu zuen: *Txokolatien kontuak nahiz ta piztu lezaken mamua / gaur lehendabizi probatuko det, eta hor konpon damua / hik kentzak beso hori hortikan, kozka egitera nua / edo lehenengo kozkan jango*

*dit, igual brazo jitanua.*  
Zortziko txikian, Agirrek lortu zuen puntuazio onena. Alaia Martinek mendira joan eta hamaiketako diferentea eraman dute. Agirrek txorixoa eta ardoa, eta Martinek Isostar eta barrita energetikoak. Agirrek horrela bota zion: *Ze negargure dedan, ez noa esatera / bota gorri hoiekin, gora eta behera / barrita ziztrin hoiek, neri ez atera / Erniora igo gera, ez Everestera.*

**Bukaerako sprina**  
Bakarkako lana bikaina izan zen, eta buruz burukora bi onenak pasatu ziren: Sarriegi eta Gaztelumendi. Sarriegik ia dena ondo egin zuen eta Gaztelumendik buelta eman behar aldeari. Saiatu zen, eta estu jarri zuen txapelduna. Sarriegik ordea, bikain eutsi zion; adibide moduan, Muxua gaiari kantatutako bederatzi puntuko: *Izan liteke lehen, neskari emana / edo noizbait hondatu, zuena plana / musuak lotu ohi du, sarri harremana / bere atzetik dator: fereka, laztana / barruan den dana / kanpora darama / hautatzea bana / balitz gaurko lana: / atzo gauean amak, eman zidana.*

Gaztelumendik indartsu bukatu zuen, eta bakarkako lanik onenak bereak izan ziren, hain ondo menperatzen duen habanera doinuan. Azken gain, bideo baten bidez jarri zioten gaia, ETaren su-etena azaltzen zuena. Gaztelumendi: *Berrogeita hamar urtez, luzaro borrokatuak / Emaizta eman duela, zirenez konturatuak / Zenbat medio ote dira, gugana bertaratuak / Garrantzia hartu dute, uneak eta lekuak / Batzuk dira terrorista, moduan izendatuak / Edo komisarrietan, odolez zerrendatuak / Gauz etortzen zaizkigu, maiz zakur amorratuak / Alde guztietan daude, jarduera armatuak. II*

MARI FE  
ARRANDEGIA  
ORDUTEGIA  
GOIZEAN: 8:00 - 14:00  
ARRATSALDEAN: 16:30 - 20:00  
NAGUSIA 36 943 550 489

Adarraga  
Konfitegia  
Pasteldegia  
Urbietan Etorbidea 7  
943 55 09 10

JOSU ALKORTA  
harategia  
NIGAN IZANDAKO KONFIDANTZAGATIK,  
ESKERRAK BEZERO GUZTIELI.  
2012. URTEA ONDO HASTEAN OPA DIZUET,  
ETA ZER HOBETO NIRE DENDAKO  
HARAGIA DASTATUZ.  
Nafar kalea 11 Tel.: 943 551 681

**TELEFONOAK** ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622  
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103  
 ☩ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauetz:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

**EGURALDIA**  
**GAUR** Denboralea baretuz joango da. Euri gutxiago egingo du eta elur-kota egunean zehar igotzen joango da, tenperaturarekin batera. Min.5° / Max.11°.  
**BIHAR** Eguraldi goibelarekin eta euri kontuekin jarraituko dugu, batez ere eguerdira arte. Iparraldeko haizea ibiliko da eta giroa hotz mantenduko da. Min.8° / Max.12°.

## UDALA - PRENTSA OHARRA

# Organikoaren garbitasuna %99,85ekoa, azken azterketaren arabera

Azterketa Lapatx konpostagunean egin dute. Azaroaren 14an, Hernanitik hara eramandako organikoa aztertu dute.

UDALAK joan den astean jaso zuen Hernanitik Lapatx konpostagunera eramandako organikoaren azken azterketaren emaitza. Eta jakinarazi duenez, emaitza horrek erakutsi du, Hernanitik eramandako organikoaren garbitasuna %99,85ekoa izan zela. Lapatxek, azaroaren 14an eramandako organikoarekin egin du azterketa. Emaitza hori dela eta, Udalak, hernaniar guztiak zoriondu nahi

ditu, «datu horiek ezinezkoak izango liriateke zuen laguntzarik gabe».

**Azterketak, noizean behin** Hernanin biltzen den organikoa, Lapatxeko konpostagunera eramaten da. Konpostagune horren ardura, GHKK dauka, hau da, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak. Udalak azaldu du, Lapatxen, iristen den organikoaren kontrola egiten dutela. Hori

horrela, noizean behin, Hernanin biltzen den organikoari azterketa egiten diote bildutakoaren kalitatea eta ezaugarriak jakiteko. Horretarako, aleatorioki azterketa egunean jaso den organikoaren lagin (muestra) bat hartzen dute. «Organikoa biltzen hasi ginetik, azterketa horietan emaitza onak jaso ditugu, organikoaren garbitasuna %98 inguruan egon baita», nabarmendu du Udalak. ||

## Gazteek, dantza garaikidea ikasteko aukera, Gabonetan

Ikastaroa doan izango da, baina izena eman behar da. Aste osoan dago izena emateko aukera, Biterin.

ABENDUAREN 27, 28 eta 29an, dantza garaikideko hiru saio emango ditu Txaro Unzillak, gazteei zuzenduta, bereziki. 15 urtetik gorako gazteentzat izango da. Helburua da, gazteek dantza mota hori ezagutzea. Saioak Biterin izango dira, 17:00etatik 18:00etara.

Matrikula doan da, baina izena eman behar da. Horretarako, aste honetan zehar izango da aukera, Biterin bertan. Dantza irakasleak dei egiten die gazteei animatzeko eta apuntatzeko. ||



## AEK - Zilegi Eskolak



### Erleen mundua ezagutzeko, beste saio bat gaur arratsaldean

AEK euskaltegiak, Zilegi Eskolen barruan, erleei buruzko ikastaro bat antolatu du. Joan den astelehenean saio bat izan zen eta gaur beste bat izango da, AEKn, 19:00etatik 21:00etara. Aurreko astean bezala, erleen munduari buruzko azalpenak Pello Zubiriak emango ditu: erleen biologia, erleen dantza, apiterapia... Irekia da eta doan. Informazio gehiago: 607592864 edo hernani@aek.org. ||

## ELKAND 17 EMAKUME ZENTRUA

### Gabonetako sukaldaritza ikastaroa, gaur

Urtero bezala, Gabonetako sukaldaritza ikastaroa antolatu du Elkano 17 emakume zentruak, Xalaparta elkartearen laguntzarekin. Gaur izango da 16:30etatik aurrera, Xalapartan bertan. Luis Irizarren ikasleek emango dituzte azalpenak. Ikastaroa, irekia eta doakoa da. ||

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN BATZORDEA

### Besteak beste, Papelera Zikuñagak jarri duen errekursoaren ebazpena, gaur

Hirigintza eta Ingurumen Batzordea izango da gaur, 18:45etan, Udalletxeko Areto Nagusia (2. pisua). 7 puntu izango dituzte hizketagai. Besteak beste: Ibaiondo poligonoan I+D laborategia jartzeko obra baimena eta Papelera Zikuñagak jarri duen errekursoaren ebazpena. ||

## PELOTA - Trinketeko Gipuzkoako Txapelketa Noble, Murgiondo eta Leonet ia finalaurdenetan dira

Trinketeko Gipuzkoako Txapelketan 12 partidu jokatu dituzte pelotari hernaniarrek asteburuan, eta horietatik 4 bakarrik irabazi dituzte. Horien artean nabarmentzekoak dira Hodei Nobleren garaipena, kadeteetan, eta Aritz Murgiondo eta Jon Leoneten garaipenak, jubeniletan. Hirurak ia sailkatuta daude finalaurretarako. Lau seniorrek berriz, galdu egin zuten eta datorren partidurako jokua hobetu beharko dute, finalaurrenetara pasa nahi badute.

Bestalde, asteburuan, Gipuzkoako Txapelketa ere jokatu dute hernaniarrek eta infantiletan, Pagola, finala jokatze saikatu da. Ostiralean jokatuko du finala. ||

## IRAGARKI MERKEAK

**ETXEKO KONPONKETAK** egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.**

**YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA.** Fotodepilazioa, eguberrikako prezio bereziki 2X1. Beharpenak aurpegi tratamenduetan. Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. **Atzietan 2, behean. Tel. 943 55 32 78.**

**Alicia C.C.:** Hobeto sentitzen laguntzen zaitut; hipnosi indarberritzailea, coaching, PNL, erlaxazioak, Bach loreak... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146 (Agustindarren plaza, 4)

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

## KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA			PELOTA - Gipuzkoako Txapelketa		
3garren maila	Lagun Onak/Hernani	3-0	Infantilak	Urnieta/Alain Agirre	2-0
ERRUGBIA			Infantilak	Gazteleku/Xabat Pagola	0-2
Mutilak Ohor. B	Hercesa-Hernani	13-29	Kadeteak	Arrasate/Arrue-Rodriguez	22-9
Senior B	Hernani-Rioja	5-41	TRINKETEA - Gipuzkoako Txapelketa		
Jubenilak	Getxo-Hernani	17-20	Kadeteak	Rodriguez/Oiarpe	15-30
Kadeteak	Irun-Hernani	7-39	Kadeteak	Noble/Urnieta	30-Ez Aurk.
Infantilak 16	Hernani-Rioja	58-0	Jubenilak	Altuna/Oiarpe	35-34
BOLEIBOLA			Jubenilak	Leonet/Urnieta	35-2
Seniorrak	Hernani-Navarvoley	0-3	Jubenilak	Garcia/Oiarpe	7-35
Kadeteak	Hernani/Leitzaran	0-3	Jubenilak	Altuna/Urnieta	29-35
Alebinak	Langile A/Langile D	2-1	Jubenilak	Murgiondo/Alde Zaharra	35-19
Alebinak	Langile C/Langile B	1-2	Jubenilak	Etxegoien/Urnieta	12-35
PELOTA - Hernaniko Lau eta Erdiko Txapelketa			Seniorrak	Lopez/Orio	34-40
Seniorrak	Aizpitarte/Ezeiza	22-17	Seniorrak	San Sebastian/Orio	35-40
Seniorrak	Murgiondo-Lizeaga	22-17	Seniorrak	Zurutza/Eple	33-40
Jubenilak	Urkizu/Lujanbio	22-4	Seniorrak	Esnaola/Behar Zana	37-40
Jubenilak	Leonet/Altuna	22-20	ERREMONTEA		
Jubenilak	Garcia/Noble	22-19	1. partidua	Etxabe II-Zubiri/Matxin VI-Saldias	27-30
Infantilak	Lazkano/Berasarte	18-9	Azysa Txapelketa	Zeberio-Ion/Juaristi-Lizaso	40-38
Infantilak	Noble/Elizalde	18-11	3. partidua	Ezkurra-San Miguel/Urriza-Urrutia I	34-40
Infantilak	Pagola/Loiarde	18-17	4. partidua	Endika-Barrenetxea IV/Oñatz-Aizpuru	29-40
Infantilak	Agirre/Iglesias	18-15			